

Haur txokoak, kinka larrian

Donostiako bost haur txokok aurrera egiteko arazoak dituzte. Dirulaguntza eskasak jasotzen dituztela eta Udalak haien lanarekiko interesik ez duela diote haur txoko hauetako kudeatzaileek.

Orreaga Aranburu

Bost haur txoko sortu ziren Donostian 1980ko hamarkada bukaeran: Bidebieta —izen bereko auzoan—, Txomin Enea —Loiola-Martutenen—, Roteta —Altzan—, Antxeta —Egian— eta Bustin Txiki —Intxaurren—.

Aisialdi elkarteek lan handia egin dute 4 eta 14 urte bitarteko haurrentzako gune hauek kudeatzen. Haur txokoek, hala ere, diru arazoak izan dituzte azkenaldian. Beraz, duela hiru urte inguru, haur txoko historikoak kudeatzen dituzten elkarteek bat egin eta Tortoloxak federazioa

sortu zuten arazoei irtenbidea bilatzeko.

Ara-
zoak



Kabia elkarteak Txomin Enea haur txokoa utziko du

aspaldiko kontua direla azaldu digu federazioko presidenteorde Loren Iturrizak. "Haur txokoek, sorrera sasoitik, Udalaren dirulaguntzekin egin dute aurrera. Lehen urteetan, Udalak haur txokoak bultzatu zituen eta interes handia erakutsi zuen. 90eko hamarkadatik aurrera, ordea, haur txokoekin ahaztu egin da".

Diru gutxi

Azken urteotan haur txokoek jasotzen dituzten dirulaguntzak oso gutxi igo direla salatu du Iturrizak: "Ematen dizkiguten dirulaguntzekin ezinezkoa da hezitzaileei soldata duinak ordaintzea eta haur txokotan funtsezko baliabideak izatea".

Bestalde, Udala haur txoko berriak irekitzen ari da —Amara Berrin eta Grosen, esaterako—. Iturrizaren esanetan, "ondo dago haur txoko berriak irekitzea, baina oreka mantendu behar da. Guk lan handia egin genuen haurrentzat ezer ez zegoenean; guneak sortu eta aurrera atera genituen. Orain, ordea, haur txoko berrien urteko aurrekontua gure haur txokoena bi halako da".

Udalak jaramonik egingen ez die-lako ere kexu dira haur txoko



historikoetako kudeatzaileak. "Ez dute haur txokotan egiten dugun lanarekiko interesik erakusten. Lan moldeak adosteko eta haur txokoen arteko koordinazioa bultzatzeko bideak jarri beharko lituzkete. Guk proposamen batzuk egin dizkiegu, baina ez gaituzte kontuan hartu. Egiten duten bakarra urteko memoria eskatzea da", azaldu digu Loren Iturrizak.

Etorkizuna

Ildo honetatik, Tortoloxak federazioko presidenteordeak ez du argi ikusten haur txokoen etorkizuna. Kabia elkarteak, adibidez, Bidebieta eta Txomin-Enea haur txokoak kudeatzen zituen orain arte. Iturrizak aurreratu digunez, elkarte honek Loiola eta Martuteneko haur txokoa kudeatzeari utziko dio. "Ez dakit desagertuko den, baina guk, behintzat, ez dugu kudeatuko, dirulaguntzak ez baitu hezitzaile baten lanaldi erdia ere ordaintzeko adina ematen".

Federazioak arazo hauei irtenbidea bilatzeko bilera eskatu zuen Udalean iazko urrian. Iturrizaren hitzetan, ez dute oraindik Udalareh erantzunik jaso. IRU-TXULO Gazteria Saileko teknikari batekin harremanean jarri da, eta bilera egiteko asmoa badutela adierazi digute. Ez digute datarik zehaztu, baina. Haur txoko historikoen arazoei eman dakiekeen irtenbidea, berriz, ez dute erantzunik eman nahi izan.

Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza